


KarKara

554

ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1994KO SAN PEDROAK



Erreportaje
Txurrukako albergea

Elkarlaneanak

Asier Gozategi eta Iñaki Andres


M. Luisa Irizar

HEMEN DIRA

SAN PEDRO FESTAK!

Argitarapen honen edizioko lagunzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Karkara

aldizkaria

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90
ISSN
1132-1105
Tirada
2.400 ale

Erredakzio-taldea
Marisa Arruabarrena
Manu Etxeberria
Miren Etxeberria
Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Idoia San Sebastian
Jabier Zabaleta
Aiako Erredakzioa
Eli Lasa
Idoia Zarautz

Publizitate-arduradunak
Miren Etxeberria
Ana Iturain
Kolaboratzaileak
Rafa G. de Txabarri
Loren Loidi
Patxi Oliden
Azken orrialdeko marrazkia
Daniel Bastos
Argazkiak
Ana G. de Txabarri
Inprimategia
Bizker (Usurbil)

- | | |
|-----------|---|
| 4 | Gutunak |
| 5 | Herrian galdezka
<i>Zer iruditzen zaizu Orio herri intsumiso egitea?</i> |
| 6 | Herriko kontuak |
| 10 | Kirolak |
| 14 | Iritzia
<i>ETB1/ETB2</i> |
| 15 | AIA
Berriak
Elkarritzeta: Maria Luisa Irizar |
| 19 | Elkarritzeta
<i>Iñaki Andres eta Asier Gozategi</i> |
| 22 | Erreportajea
<i>Txurrukako albergea. Astialdirako aukera ederra.</i> |
| 24 | Denetik pixka bat |
| 29 | Kolaborazioa
<i>Garai bateko itsaso oparoa</i> |
| 30 | Azkena |

1994ko
publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Laú modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauetan zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Gure ikastolak desagertzea da helburua

Zer dela eta jartzen ari zaien hainbeste oztopo ikastolei, Sare Pribatuaren gelditzea erabaki ditenei batez ere, hauek zituzten helburuak eta daramaten martxa ona ezabatu nahian? Argi eta garbi ikusten dugun bezalaxe, gure agintariak duten ikastolarenkiko jokaera maltzurra da.

Zelako amorrua ematen duen ikustek, zenbait guraso eta irakasle lanean -zozketak egiten, herriko festetan taberna jarri eta abarretan-, sot batzuk jasotzekotan, ikastola hauetan zaien diru laguntza, nola edo hala biltzeko asmoarekin. Eta gure herriak hauen buruhauste berbera du, zoritzarrez.

Bestalde, a zer pozarekin hartzen den jendeak jartzen duen gogoa eta grina, bakoitzari dagozkion betebeharra, hauetan nola burutzen dituzten ilusio handiz. Itzela da jendearen portera, itzela benetan! Ikuslea besterik ez dago, ikastolarenkiko duten jarrera grinatsua. Dena emateko prest daude beren ikastolak aurrera ateratzen.

Baina orain dela hogeit bat urte bezalaxe kalean hasi behar ote da diru eske, hainbat ekitaldi eginez, ikastola bakoitzak duen helburua lortzeko? Oso lotsagarria da, gaur egun, honetaraino heldzea, penigarria oso! Jakinda, ikastolak izan direla, euskara eta gure kultura ia hiltzorrik, ostera, zuzperti dutenak neurri handi batean; baita aldiberean geure nortasuna indartu ere. Eta gainera, era berean beste

ikastetxeak bultzarazi klaseak euskaraz ematera. Zeren hauetan, osterantzean, beren etorkizuna kolokan ikusten baitzuten, gure gizarteak euskararenkiko aldean hartua zuen jarrera zela eta.

Horregatik, ikastola izan do, da, eta izaten jarraituko du, euskara eta euskaldunen izaera indartuko duen bakarra; eta, beste ikastetzeei bidea irakatsiko diena, orain arte bezalaxe.

Oraingo agintariak beldur ote dira, La Puebla de Labarka gertatutakoaz, han Errioxan, non eskola nazionala itxi egin behar izan baita haur faltaz eta ikastola herriko haur guztientzako eskola bakarra gelditu baita... Eta gauza bera suerta liteke Euskal Herriko herri gehienetan,

Hau dela eta, arren bultzatzeaz herriaren nahia, eta ez hartu duzu jokaera maltzur hori gure ikastolak iutzeko helburuarekin, emandako hitza janet gainera.

EUGENIO SANTAMARIA

Ni intsumiso, ta Orio zergatik ez?

Kaixo lagunak, aurki herriko bi gasteri, intsumiso direla-eta, epaieta burutuko zaielako gatozkizue. Herrian apurka-apurka intsumiso kopurua handituz doa eta hori ona da, baina ez da nahikoa. Ejerzitorik eta tiro-hotsik gabeko herri bat nahi badugu behintzat. Horregatik aurkeztu genuen Udaletxean intsumisioaren aldeko mozio bat. Gutun honen bitartez,

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatual lokalak eta garajeak**

hala, 3

Ufisa: 83 61 66

Orio 2001D

iTZiAR

Kirolak

Tlfno: 83 31 03

IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

gerora antola litzkeen ekintzetan parte hartzen gonbidatzen zainztegu, denon artean errazagoa izango da-eta.

AUPA ORIO INTSUMISOA!

HERRIKO INTSUMISOAK

Denok batera estatuarri gerra!

Aupa gazte. Intsumisioaren aldeko jarrera sozialak, edozein aldetik, gero eta ozenagoak diren garai honetan, Orioko gazteriari zenbait gauza azaldu nahi dizkiogu.

Herriko intsumiso taldeak aurkeztu duen mozioa bultzatzeaz gain, estatuarri egurra ematera gonbidatzen zaituztegu. Nola? Mila eratara: alistatzeko gutuna iristean bueltan bidali, epaitu behar bazaitzute beren mutur aurrean kristonak eta bi bota... eta mobilizazioetan parte hartu! Parte hartzea txikia denean emaitza txikiagoa da-eta.

Bukatzeko, herriko bi intsumiso horiei agur bero bat bidaltzeaz gain, Ceutan, intsumiso deklaratzearagatik, epaitu zuten Iban Ilarramendi preso politiko zarauztarra agurtu nahi dugu. Berak ere abertzale delako eman zion ezetza espainiar militarismoari. Beno, ba hau izan da guztia.

GORA ORIO ETA EUSKAL HERRI INTSUMISOAK!

JO TA KE, IRABAZI ARTE!



ORIOKO JARRAI

Autoak aukera
onean

AIA ORIO

Telefona: 13 04 38

LIZASO

**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Tala, 3

Tlfno: 83 10 96

Zer iruditzen zaizu Orio herri intsumiso egitea?

Orioko intsumiso taldeak mozioa aurkeztu zuen Orio herri intsumiso egiteko, horregatik, guk herritarrei hori zer iruditzen zaien jakin nahi izan dugu.

AINARA PEÑA

15 urte



Ondo iruditzen zait. Gazteek ez dutelako beharturik joan behar soldaduzkara, normalean gazteek ez dute nahi joan orain, eta voluntarioa izan beharko luke.

ENEKO OLARIAGA

18 urte

Oso ondo iruditzen zait, ze ez luke inork egin behar, ez badu nahi. Gainera, soldaduzkarekin ejerzito bat sortzen da eta ejerzitorik ez luke egin behar, ustez denok zibilizatuak gara...



**Bertan egindako
opil eta ogiak**

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65



AURRERA
disko-taberna
ORIO

ARBIL ARREGI

43 urte



Oso ondo, gaztea librea da nahi duena egiteko; soldaduzkak bizitza erditik mozten du, lanean da goena lana utzi, eta batzuei lana gordetzen zaie zorionez, beste askori ordea...soldaduzkara bordonatez joan beharko litzateke, eta kobrautz.

INAZIO URDANGARIN

65 urte

Gaizki. Guk egin genuen eta besteek ere egitea daukatela. Han espabilatu, ikasi egiten da. Orango gazteak pasiatu egin nahi du eta horrela ez da mundu, lana egin behar da.



TALAI
AHOLKULARIAK, S.L

A S E S O R I A
F I S K A L A , L A B O R A L A ,
J U R I D I K O A , K O N T A B L E A

Iñaki Olariaga Larrañaga

Esko Gudari, 50-B-1.E
Tfnoa.-Faxa: 13 37 20
ORIO



Atxiloketei buruzko mozioa

Segidan, Orioko Amnistia-ren Aldeko Batzordeak Eusebio Lasarte, Manolo Salsamendi, Juanito Orella eta Ramon Unanue Orioko biziagunen atxiloketak salatzen zituen mozioa aurkeztu zuen.

Atxiloketa hauetan familiarei sortzen dizkieten gastuak Udalak ordaintza onartu zen.

Botazioa egin baino lehen Manuel Lasartek jasandako tratua entzun genuen bere ahotik, grabatutako zinta batean. "Lepotik heldu eta belarriko zuloan pistola jarri zidaten, trapu zaharra bezala ibili ninduten gela guziak pasa arte eta lehotik behera botako nindutela esan zidaten".

Manuel Lasartek apaitegian jarritako salaketaz gain, beste bat jartzea erabaki zuen Udalak, bertan zeuden alderdi politikoetako hamaiaka ordezkarien aideko botoekin.

Plenoa bukitzar zegoela egun horretan bertan askatu zituzten Manolo Salsamendi eta Juanito Orella azaldu ziren, eta han bildutakoei eskerrik eman zizkieten izandako laguntzagatik.

Atxiloketa hauetan direla eta bi manifestazio egin ziren herrian.

Manolo Salsamendi, Juanito Orella eta Ramon Unanue askatu bazituzten ere, operazio berean atxilotutako Eusebio Lasartek Madrilgo gartzelan jarraitzen du.

Atxilotutako lau lagunek tratu txarrak jasan zituztela salatu zuten.

Intsumisio eta atxiloketei buruzko mozioak aztertu ziren ohiz kanpoko plenoan

Ekainaren 9an eta jendez gainezka zegoen Udaletxeko Pleno-aretoan egindako ohiz kanpoko plenoan Udalak, Manuel Lasartek jasandako tratu txarra salatu eta Orioko Talde Intsumisoak aurkeztutako mozioa aztertu zuen.

Herriko intsumisoen mozioa

Mozio honetako sei puntuak banan banan aztertea

erabaki zen. Hauetatik lau onartu egin ziren aho batez:

- intsumisoen epaiketen aurkako jarrera azaltza

- herriko intsumisoetan ordezkari bat izendatu eta epaiketek sortzendentitzen gastuak bereganatzea

- intsumisoari buruz informazioa emango duen bullegoa irekitza

- erabaki hauetan herrian argitara eramatea.

Alkateak bere burua eskaini zuen intsumisoen ordezkaria izateko.

Beste bi puntuak berriz, ez ziren onartu: herriko gazteen datuak ejerzitoari ez ematea eta Orio herri intsumisoa deklaratza.

EAJ, EA eta independenteen puntu hauen aurkako jarrera azaldu zuten soldaduzka egin nahi dutenen eskubideak errespetatu egin behar direla esanez.

Hala ere, soldaduzka egin nahi ez dutenen datuak ez ematearen alde azaldu ziren zingotzi guziak.

O R I O
Auto Eskola
Telefona: 83 57 19

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

83 00 44 13 20 26

**"Xanxe" eta Joseba
Manterola Kun mendira
doaz udan**

Himalaya erdi aldean dagoen 7.085 metroko luzera duen Kun mendia igotzeko asmoa dute Jose Luis San Sebastian eta Joseba Manterola. Oriotarrak bi badira ere guztira hamasei euskaldunek osatzen dute taldea.

Espedizioa uztailaren 30ean abiatuko da. Indiako gobernuak hogeita zapeta egunetako baimena eman die, eta abuztuaren 13an "kanpo basera" iristeko asmoa dute.

Bidaia honek suposatzen dituen gastoak ordaintzen laguntzeko kamisetak jarri diturte salgai Arkaitz tabernan. Nikiek 1500 manga Iuzekoak, eta 1200 manga motzeakoak balio dute.

Motondori buruzko epaiketa martxan

Joan den astelehenean, hilak 20, hasi zen Motondon usetzko delito ekologikoa egiteagatik. Orioko alkate jaunari egingo zaion epaiketa.

Auziaren azken kapituluaren berririk ezin dizuegu hemen emun, erredakzio ixtekoan, oraindik bukatu gabe zegoelako, baina, udako bueltan jakinaraziko dizuegu.



Urteko egunik luzeena agurtzen

San Juan bezperako suuk agurtuko dute eguzkia bere puntu gorenean dagoela —Ekaina, "eguzki gaina"—. Gau berezi horrek bilduko gaitu su eta garren inguruuan ia amaierarik gabeko egun luzean. Ohiturari jarraituz, etxeetako traste zahar, ganbaran puskatu eta zatartutako ohol gordeak, dena atera eta *San Juan Berde* egunean botako ditugu eraberritze-zeremonia samurrean parte hartuz.

Norbaitek oraindik antzeman ez badio, literatura guzti horren arrazoia honakoa da: guk ere —KARKARAkideok ere— bakazioak hartzen ditugula uda pasa arte. Horrek oso kontentu jartzen gaitu eta, ikusi duzuenez, gure bena literarioaren mesedegarri suertatzen da. Ondo pasa uda KARKARAzaleak!

ITURAIN okindegia

Aritzaga

83 08 28

**ALTXERRI
Jatetxea**

**Antilla
Jatetxea**
Eguneko menua, karta,
pintxoak...
Tfnoa: 83 07 50

Karkara
telefona: 83 15 27

**OLIDEN
HARATEGIA**
EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

Biblioteca udaran itxita egongo da

Kultur Etxeko obrak direla eta, Biblioteca itxita egongo da ekainaren 15etik irailaren bukaera arte. Obrak irailean hasiko dira eta hasi aurretik Biblioteca hustu eta lekuz aldatu behar da. Aldaketa hori egiten den bitartean, beraz, itxita izango da jendearentzat.

Biblioteca urriaren hasieran-edo irekiko da berriz leku probisional batean, Kostako tailerrean, eta han egongo da Kultur Etxe berria egiten den arte.

Jubilatu esku lanetako erakusketa

Ekainaren 29an, San pedro egunean, Zaharren Babeslekuuan esku-lanetako ikastaroa egin dutenen lanen erakusketari irekiko da. Erakusketa Udallexeko pleno-aretoan egongo da ikusgai San Pedrotako festa egunetan.

Argazki zaharrak biltzeko azken eguna

KARKARAK argitaratu duen argazki-libururako materiala utzi nahi digutenek uztailaren bukaera arte dute epea.



"Musikaz blai", Musika Eskolako matrikulazio-kanpaina arrakastatsua

Orioko Musika Eskolak, matrikulazio kanpaina dela-eta, hilabete osoan zehar zenbait ekitaldi antolatu ditu, eta edozeini gogoa ere sartuko zaio, dena utzi eta do-re-mi-fa-solean hasteko, konzertuetara hurbildu bada, Bakarka, taldean, instrumentu ala ahotsarekin aritu zaizkigun artistak oso gustora utzi gaituzte egun hauetan. Benetan eskertzekoak egin diren lana eta ahaleginak. Harizko laukotea, piano jolea, eskusoinu orkestra, eta azkenik, Eskola bertako musikalariak bere saioak eskeini dizkigute, zein baino zein ederrago. Oraindik ere joan gabe geratu direnci Salatxo Abesbatzak ekainaren 29an, arratsaldeko 20:00etan, elizan emango duen konzertura ez huts egiteko gomendatuko genicke. Bach, Mozart, Eichendorff, Haydn, Aita Donostia, Sibelius... eta beste konpositore batzuen lanak entzuteko oraindik garaiz zabiltzate.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak...

Teléfono: 83 06 09

**KAIA
JOLASAK**

EROSLE
AUTOZERBITZUA

Arrantzari buruzko erakusketa antolatu du Euskadiko Itsas Gaztediak

Euskadiko Itsas Gaztediak arrantzari buruzko erakusketa fotografikoa antolatu du Donostiarako Untzi Museoaren laguntzaz.

"Arrantzalea zer den itsasoak daki" izeneko erakusketa hau Orion izango da ikusgai San Pedro festetan, Herri Ikastolareneko lokaletan. Erakusketa urgazki zahar eta berriez osatuta dago.

Erakusketaren proiektua honako hauen artean burutu date: Euskadiko Itsas Gaztedia, Untzi Museoa eta Iñaki Martin, Euskal Herriko Unibertsitatekou.

Benito Lertxundiren emanaldi arrakastatsua Udal Frontoian

Ekainaren 4an eta Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Benito Lertxundiren kantaldia izan zen herriko pilotalekuaren, gaueko hamar terditan.

Han bildutako ihurehundik gora pertsonek bere abesti berriak ezagutzeaz gain abesti zaharrekin gozatzeko aukera ere izan zuten.



Orion EAJk lortu zituen boto gehien Europako hauteskundetan


Ekainaren 12an izandako Europako hauteskundeetan EAJ izan zen boto gehien lortu zuen alderdi politikoa Orion, EAJk 528 boto lortu zituen (%33,65).

Bigarren alderdia HB izan zen 449 botorekin (%28,62). Hirugarrena, EA, 314 boto (%20,01), Laugarrena, PSOE, 133 boto (%8,48), eta bosgarrena, PP, 105 botorekin (%6,69).

Abstenzioa beste lekuetan bezala oso altua izan zen eta oriotarren erdiak baino gehiagok paso egin zuen, %53,69 ez baizen bota ematera joan.

ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA

Lasaitasuna eta giro ona

ZUMINTZA

**- Ileapaindegia
- Depilazioa**

Tfnoa: 83 17 56

**- Estetika
- Sauna**

Zure sukaldeko azulejoa

ALONSO

ZERAMIKAK

Iturbide 5 ORIO

Arraunketa monitore-ikastaroa gazteentzat

Orioko Arraunketa Elkar-teak monitore-ikastaroa antolatu du gazteentzat Udaleko Euskara Batzordearekin elkar-lanean. Udaleko Euskara Batzordea esfortzu haundia egiten ari da gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko, eta horregatik guztiz euskaran izango den arraunketa monitore ikastaroa antolatu du Eusko Federazioaren gainbegiradapean.

Honako ezaugarriak izango diru ikastaroak:

- 1994ko urriaren azken lau larunbat hartuko diru ikastaroak.

- Orioko Klubeko instalazioetan emango da.

- 16 eta 22 urte arteko gazte euskaldunentzat izango da. Arraunlari direnek lehentasuna izango dute.

- Honako gaiak jorratuko dira: arraunketako oinarrizko ezagutzak, prestakuntza fisikoa, entrenamendu-plangintzak, arraunketari egokitutako medikuntza eta arraunketaren historiari buruzko apunteak.

- Izena emateko azken eguna 1994ko urriaren 3a izango da, eta lekua Orioko Klubean.

- Preziua: 2.000 pezeta.

- Ikastaroan parte hartzen duten guztiek diploma bana jasoko dute.



Zortziko oriotarra, historia berritzera

Hogeitabat urte dira, hogeitabat, Orioko "zortzikoak" ez duela Estatu-Txapelketa irabazten. 1973, urtean, Estanix Sarasua hankeko zela, irabazi zuten oriotarrek Banyoles-ekoekin 1968.ekit izan zuten norgehiagoka partikularra.

Aurten, beste bi Sarasuatarrek, Migel Anjelek eta Andonik, eta Migel Anjel "Altxerrik", belaunaldi berriaren izenean, erronka historikoaren eragile izango dira asteburu honetan—ekainaren 25-26an—Banyoles-en bertan jokatuko duten txapelketan. Hilaren 19an, Euskadiko txapelketa aise irabaziz, Estatukoa ere etxeratzea badagoela ondo asko frogatu zuten. Jardunaldia borobiltseko, egun hartan bertan, Orioko lemazaindun laukoak eta lemazain gabeko bikoak ere txapela lortu zuten.

PATXI

Telefona: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA

ENDAIA 3 TFNOA 83 18 97

URANGA
BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236



Eusko Gudariak, 7



ARDATZA

83 10 88

MAPFRE, S.A.
ASEGURUA

Eusko Gudari 50 B-1, E
Telefona: 13 37 20

Sofboleko estatuko monitore-titulua lortzeko ikastaroa

Gipuzkoako beisbol eta softbol federakuntzak guztiz euskaraz izango den ikastaro bat antolatu du Orioko euskal batzordearekin elkarlanean.

Ikastaroa barnetegi modukoa izango da Txurruka kanpamenduan irailaren 15etik 18ra bitartean eta hamasei urte gorakoentzat izango da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hots egin Udaleko Euskara Zerbitzura.

Aqua-Gym praktikatzeko aukera udan honetan

Aurten lehen aldiz aqua-gym ikastaroak antolatu ditu Udalak uztail eta abuztuan.

Hamabost eguneko ikastaroak antolatuko dira eta kainpineko pizsinan emango dira. Saioak 50 minutukoak izango dira, 20:00etutik 20:50etara.

Klaseak Sonsoles Lopez-Morak emango ditu. Astean hiri eguneko ikastaroak 3.000 PTAko prezioa izango du eta astean bi egunekoak, berriz, 2.000 PTA.

Informazio gehiago nahi dutenek Udaletxeen galdeku behar dute.



KIROLAK

Illarramendi eta Berasaluzek ezingo dute txapelik jantzi aurten, Aranburu anaien erruz

Pelotako Finalak

Datorren igandean, hilak 26, arratsaldeko lauretan hasita pelota txapelketa-rako finalak jokatuko dira. Ondorengo hauek dira iritsi diren bikoteak:

Benjaminak: Amenabar-Galarraga; Aranalde-Arostegi. **Alebinak:** Iribar-Manterola; Unanue-Atorrasagasti. **Infantilak (eskuz):** Aranalde-Arruti; Solaberrieta-Manzisidor; **Helduak (paletaz):** bigarren mailan: Lukas-Erkizia; Iturain anaiaiak. Lehen mailan: Erkizia-Etxeberria; Aranburu anaiaiak. **Erremontetan (gaztetxoak):** Brit-Aizpuru; Agirresarobe-Itxaso.

Aurtengo Txapelketan zerbait nabarmentzekotan, hiru gauza hauek: gazte-txoen mailetan parte hartu duen haur pila, etorkizun oparoa ekar diezakeguna; erremontean mutil koskorrek egin duten aurrerakada; eta paletan, berriz, Illarramendi eta Berasaluze finaletik kanpo geratu izana, 1982tik elkarrekin jokatu dituzten hamar txapelketetan finala jokatu baitute.

SARASUA ERRETEGIA

- Berezitasunak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
Tfnoa: 83 00 05
13 25 32

BORDATXO
Taberna

■ 13 30 14



TXOMIN
arraindegia
Tfnoa: 83 27 47

Zure bainurako azulejoa
ALONSO
ZERAMIKAK
Iturbide 5 ORIO

Ione Iparragirre

“Sofbolean konzentrazioa eta erreflejoak dira nagusi”

Bukatu berria dute SOFBOLEko neskek denboraldia eta, balantze txiki bat egiteko Ione Iparragirrerengana hurbildu gara. Manu Peñarekin batera bera izan baitzen Amerikatik datorkigun joku honek erakarri zuena. Biak, bai Manu eta bai Ionek, Beisboleko monitore agiria dute. Orain ia urtebete herrian taldea osatzeko deia zabaldutzen, eta, bi astetan, 22 lagun bildu ziren.

KARKARA: Zergatik Sofbol, eta ez Beisbol. Diferenteak al dira?

Ione Iparragirre: Sofbola Beisbolean oinarritzen da, ia berdinak dira. Sofbolean, zelaiaren neurriak txikiagoak dira, pilota handiago eta biziari arau aldatzten dira, besterik ez.

K.: Deialdia egiterakoan pentsatu al zenuten horrelako erantzunak izango zuenik?

L.I.: Egia esan, ez. Gore asmoa saio bat egitea izan zen, erantzunak berak animatu gintuen aurrera segitzeko. Nere ustez, neskeentzat kirola egiteko hain aukera gutxi izatea, normalean, eragin handia izan zuen erantzun horretan. Gurezako ondo pasatzea eta disfrutzea dira lehen helburuak, kompetizioa-eta atzetik dator. Sofbolak bietarako aukera

ematen du.

K.: Zein ari zarete taldean?

L.I.: Guztira hemezortzi gara, zaharrenak hogei urte izango ditu eta gazteenak hamasei. Hauetatik hiri bat luaneari dira, eta besteak ikasten.

K.: Zergatik aukeratu kirola hau?

L.I.: Bada oso gutxi ikusia eta diferentea delako. Arauak nahiko errez ulertzten diru, baina, bestalde, jokoak oso bizia egiten dute.

K.: Ezaugarri fisiko onak edo prestaketa berezia izatea eskatzen al du sofbolak?

L.I.: Neretzako burua oso argia edukitzean dago kakoa. Kirol honetan konzentrazioa eta erreflejoak dira nagusi. Gainera hau ez da batek egin behar duena, baizik eta talde osoak. Talde kirola da eta guztiak lana eskatzen du. Bakar-



kako saiaketeak ez dute zentzurik. Elkarekin oso harreman estua izatea eskatzen du, baina ez kondizio fisiko ikaragarriak.

K.: Zer moduz moldatu zarete entrenatzeko?

L.I.: Orain arte astean hirutan bildu gara, 6.30-8ak bitartean, eta datorren urtean ere horrela jarraitzeko asmoa dugu. Agian, entrenamendua zerbaiz aldatuko dugu, prestaketa fisiko orokorra eta jokorako zehatzagoa dena beriartzaz. Baina, dena dela, oso ondo konpontzen gara eta pri-

meran pasatzen dugu.

K.: Zer esango zenieke sofbola probatzeko gogoa dutenei?

L.I.: Bada noski animatzeko, etortzeko guregana. Gainera aukera ezin hobeaztango da Orion bertan imilean, Txirrukan antolatuko den ikastaroan. Lau egunetan izango da, euskalaz emango da, eta sofboleko monitore titulua lortu ahal izango da. Erabat irekia izango da parte hartzeko posibilitatea eta, lau egunetan, gauza pila bat ikas daitezke.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

Carmen

ARRAINDEGIA

Tfnoak: 83 05 37 83 33 71

**Eugenio
Garmendia**

KONTSEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66

Futbitoko finalak

Ekainaren 30ean San Pedroko festako programaren barne Xurrumurru Kultur Taldeak antolatutako futbito txapelketaren finalak jokatu dira.

Partidu hauek arrasaldeko bostetan hasiko dira frontoian.

Lehenengo partidua hirugarren eta laugarren posturakoa izango da Aurrera-Daddy eta Katxina taldeen artean.

Bigarren partidua kopako finala izango da honako talde hauen artean: Manchester field eta Quiser.

Azkenik, ligako finala jokatuko da Gabon eta Olidenen artean.

Neska saskibaloilariak maila onean

Emaitzia onak izan dituzte aurten goan ere Joakin Aranburuk eta Eladio Zubizarretak zuzendutako saskibaloit-taldeek. Seniorrak, lurrakde-txapelketaren mailan bigarren urtean, 18-20 talde zituen ligan lehen postuetan geratu dira, nahiz eta hobeto geratzeko aukerak ere izan dituzten.

Eladio Zubizarreta entrenatzailearen esanetan, "gaizki dertu bat izan zen arazo: ezjakinean partidu batera ez joate-agatik, puntuak kendu zizkiguten, eta, puntako taldeek puntu gutxitako aldea genuenez, nahikoa izan zen sailkapenean postu asko galtzeo".

Jubenilek, berriz, Liga osoan ezzaten partidurik galdu, eta Txapelketa haise eskuratu zuten, txapeldun nabariak. Partidu bakarra galdu dute denboraldi osoan, kopako finalekoa hain zuzen ere, eta, ondorioz, txapeldunorde geratu ziren kopan.

Fruitu onak ematen segitzen du, itxuradenez, Joakin Aranbururen entrenatzaile-larriak. Kontutan izanda, gainera, multilen talde berriari ere laguntzen aritu zaio-la, pozik egoteko moduko emaitzak dira aurtent jaso ditucnak.

**GURE TXOKO
TABERNA**

ARITZAGA KALEA

—Kirola eta osasuna guztiontzat—

Beroketa

Askotan ikusten ditugu kirolariak telebistan, itxuraz zentzu gabeko, mugimendu eta ariketa arraro batzuk egiten, edozein kirol praktikatzen hasi baino lehen. Gure bururari askotan galdetzen diogu zutik, korrika ala etzanda egiten duten gimnasia guzti hori zertarako den.

Kirolen bat praktikatzen duenari, ordea, oso ezagunak egiten zaizkio, iharduera fisikoa hasi baino lehen, egiten diren ariketa hauek: beroket- ariketak dira, eta jarraian espikatuko ditugu.

Zertarako beroketa? Nahiz eta mota askotakoak dauden, denak helburu garantzisua eta bakarra dute: gure gorputza intentsitate handiko iharduera baterako prestazea, horrela egoera fisiko eta psikologiko ezin hobeantzen gara kirola egiteri. Pixkanaka eta poliki gure gorputza berotu eta egoera onean-jartzea da beroketaren funtzio nagusia, autoarekin bezala, gure gorputzak gurpilak, motorm eta amortiguadoreak egokitutako behar ditu, gero etorriko den iharduerara.

Zein da beroketaren eragina? Beroketak bihotzaren taupada erritmoa igo, hormona batzuk odolera isurtarazi, odol presioa handitu, arnasketa egokitu, giharretara odola bidali, izerdia isurtarazi, gorputzko temperatura igo...egiten du, eta lesio eta ezbeharrengundik babesten gaitu, mentalki prestazien garen bitartean.

Nola egin behar da beroketa? Saio ezberdinak bereiztuko ditugu: Saio Orokorra, hasteko egiten dena da, eta, honen bitartez gure odol-zirkulazioa martxan jarriko dugu. Korrika egitea, intentsitate txikiko ariketak eginez...lortuko dugu. Saio Belezia, norberak dituen arazo konkretuetara zehaztuko dugu: lesio edo akatsak ez areagotzeko egiten da eta, bertan, estiramentu eta mugimendu bereziak dira nagusi. Saio Espezifikoa, gero konpetizioan erabiliko dugun intentsitateko ariketaz osatzen da eta geroko esforzu gogorrarekin oso lotuta egon behar du.

PRAKTIKARAKO AHOLKUAK:

- Ariketak poliki hasi eta poliki gogortzen joango dira
- Arnasketa normala egin behar dugu hasieran
- Ez dira mugimendu gogor eta biolentoak egin behar
- Gorputzaren atal guztiak parte hartu behar dute
- Hogei bat minutuko iraupena izango du gutxi gora-behera
- Txandala jantzita izan behar da, eguraldiaren arabera
- Izerditan bukatu behar da, baina ez nekatuta
- Beroketa bezain garrantzisua da, konpetizioa bukatu eta, lasaitze-ariquetak egitea, gorputza bere egoera normalera bueltatzeko lehenbailehen.

Rafa G. de Txabarri

ALONSO ZERAMIKAK

Mota guzietako azulejo eta gres. Azken modelo berriak.

Porcelanosa, Venis, Diago, ea...

Iturbide, 5

Tfnoa: 13 10 88

ORIO

ETB1-ETB2



LOREN LOIDI

IRAKASLEA

dezagun bere honetan: "ETB1: Su objetivo es constituirse en televisión de primera opción (azpimarra nirea da) para el público euskaldun. ETB1 presenta una oferta completa y evita, en lo posible, enfrentarse directamente con la competencia (...) Al contrario que ETB1, ETB2 no ofrece una programación completa, no hay programación infantil en castellano, ni retransmisiones deportivas..."

Baina buina zeri deitzen ote diose "oferta completa"? Eta nola ez da beste katekin, konpetentziarekin alegia, lehian egongo gu denok, euskaldunok hain zuen, elebidunak baldin bagara? Guk edozein kate ikus dezakegu. Hego Euskal Herrikoek gaztelaraz eta Iparraldekoek berriz, frantsesez. Halako eskauntza izañik euskarazko irratxo bat besterik ez da, kirolak eta haur programa ugari eskauntzen duen irratxo zoritzarrez. Euskaldunoi denetarik gustatzen zaigu, kirola, informazioa (baina ez eguerdiko ordubatean ia denok lanean ari garen ordutan). ETB2an ordubi t'erdietan), dokumentalak, lehiaketak (batzuk badira, bai), zinema, kultur programak, marrazki bizidunak... Eta inkestek diotenez ETB1ak eskauntzen duenak ez gaitu asetzan ("Los vascos opinan que los canales de mayor

calidad son ETB2 y TVE2" 94-2-8an El Mundu). Badakigu euskaldunak gure herrian gutxiengoa garela eta gutxiengo baten zatiak ikusten duen telebista deficitarioa izan beharko duela denboran luzez (publizitate gutxi sartzen da eta gainera asko eta asko gaztelaraz) baina ETBren sorerra oso gertutik ezagutu duten askok dioten bezala "ETBn audientziak agintzen du baina ez zen horretarako sortu" (Iñaki Behobide, 94-2-13ko Argia astekarian). Areago eta zorrotzago mintzo zaigu Ramon Labaien Kultur kontseilarizenean ETB martxan jartzeko ahaldegia handiak egin zituenak: "ETB2 es un injerto desastroso para la televisión euskaldun" (El Correo, 93-1-10ean).

ETB2 beharrezko den eztaba idatzten ez gara orain hasiko, baina garbi dagoena zera da, ETB2ak euskara eta euskal kultura gehiengoa den erdaldungoaren gana iristen saiatu beharko lukeela eta horrelako askorik ez diot ikusten.

Laburbilduz, nire iritziz telebistak denetatik egin behar du, entretenitu, informatu, denon kultur maila igotzen ahalegindu, kirolak eman... eta euskaldunok komunitate txikia garelako ez diogu iritzi horri uko egingo, naizt eti diru irabazirik ez eman, irakaskuntza, osasungintza eta beste hainbat zerbitzu publikotan gertatzen den bezalaxe, honetan ere kalitatea exijitu beharra dantagu euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ukaezina delako. ETB2ak ETB1 osatzeak ez digu guri balio, ETB1 oso-osoa behar dugu bera baita euskaraz bizitzen laguntzen digun bakarra.



Eskulanak haurrentzat Kultur Etxean

Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarteak berriro ere zenbait ekintza prestatu ditu bertako eskolaumeentzat. Uztailean, goizeko 10etatik eguerdiko ordubata bitartean, adin desberdinako haurrek aukera dute eskulanak, jolasak, ibilbideak,... egiteko monitoreen eskuak. Aurreko urtetako esperientzia ikusiaz, pentsatzen dugu aurten ere haurrak pozik izango direla ekintza hauekin.

Bestalde, kurtsoaren bukaerarekin batera, Kultur Etxeko ordutegia aldatu egin da udara gainean dugula-eta. Beraz, orain goizez eta asteartetik ostirala bitartean goizeko 8etatik eguerdiko ordubiak arte irekiko da. Eta arratsaldetan berriz, bi egunetan bakarrik, asteartetan 4etatik 7'30etara eta ostegunetan 3'30etatik 7'30etara.

Liburutegira joan nahi duenak kontutan izan beharko du, eguraldi ona egiten duen ostegunetan liburutegia piszinan jarriko dela, iaz bezala.

Iturrioz eta Andatzako jaiak

Iturrioz San Juan jaiak ospatuko dira, eta ekintza nagusienak hauek dira:

Ekainak 24: 11tan Meza eta ondoren txapelketa, Gauean berriztikitixa Rekalde anaien eskuak.

Ekainak 25: Gauean trikitixa Azkonobieta eta Jokinekin.

Ekainak 26: 12tan Meza. Ondoren kirol jaialdia eta erromeria Laja eta Landakandarekin, eta gauean beste saio bat egingo dute.

Andatzan berriz San Pedro jaiak ospatzen dira:

Ekainak 28: Trikitixa gauean Bihotz eta Kristinarekin.

Ekainak 29: 11tan Meza. Ondoren trontza eta gauean Kaxiano.

Ekainak 30: Haurren eguna.

Uztailak 1: Mus txapelketa gaueko 9tan, eta ondoren Maixa eta Itziar.

Uztailak 2: Gaueko 11'30tan Tapia eta Leturia Band.

Uztailak 3: Martin trikitilararen musika gauean.

Uztailak 9: Gaueko 10etan bertsolari jaialdia Egaña, Olaso, Peñagarikano, Mañukorta eta Lizasorekin. Gai-jazzzalea Iñazio Usarralde izango da.

Uztailak 10: 10etan Meza eta eguerdian kirol jaialdia. Ondoren Rekalde anaiak trikitixa joko dute.

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro

83 45 21

ALUSTIZA AUTOBUSAK

16, 36 eta 56 plazakoak

Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 19 27

M. Luisa Irizar

"Nire mailarik onenera iritsi naiz eta erretiratzeko garaia eterri zaidala uste dut"

Maria Luisa Irizar, nahiko ezaguna dugu guztiok kirol munduan. Andoainen jaioa izan arren, gaur egun eta ezkondu zenez geroztik, Aiako "Zalbardin" baserrian bizi da. Gu etorkizunari begira dauzkan asmoen eta bere kirolari hiztaren berri jakin nahian hurbildu gara berarengana.

IDOIA ZARAUTZ

KARKARA: Noiz konturatu zinen korrika egiteko gaitasuna zenuela?

M. LUISA IRIZAR: Lehen lehenik esan beharra daukat, aita izan dudala garaibatean korrikularia. Personalki iruditzen zait, korri egiteko gina hau berarengandik etorri zaidala, Eskolan nentilela, 15 urterekin eman nituen nire lehen pausoak kirol honetan. Gimnasiako asignaturan adibidez, korri egiteko ordua iristen zenean, beti oso ondo ibiltzen nintzen. Ondorioz, eskolako lagun batzuek animatuta, Bixente Huzinegana jo nuen, eta berarekin hitzegi eta gero, astean bi egunean trenatzen hasi nintzen. Aurreneko egunean 8 kilometro egia nituen, segituan esan zidan entrenadoreak, "M. Luisa, bide luzean korritzeko ba-

tikoko duzan pertsona izango zara".

Aurreneko urtea, karrera popularretan eta antzekoetan parte hartuz pasa nuen. Bigarren urterako, markak hauseten hasia nintzen; Gipuzkoako txapelketan parte hartu nuen, gero Euskadikoan, eta horrela marxa piska bat hartu arte. Momentu honetan konturatu nintzen zerbaitegian nezaeela, eta aurrera jarraitu beharra neukala. Nire gurasoak ere, markak egiten hasi nintzen garaiaren, aurrera jarraitzeko aukera haundiak ikusi zituzten, eta asko lagundu zituzten. Etxeko laguntza ikusita, aurrera jarmitzea erabaki

nuen.

K.: Nolakoak izaten ziren entrenamenduak?

M.L.I.: Hasieran entrenamenduak astearte eta ostegunetan izaten zireni, baina markak hobetzen hasi orduko, egunero entrenatzen hasi nintzen. Behin gimnasioan, beste 7 edo 8 kilometro egiten nintzen poliki-poliki, beste battean berriz, 100 metroko trote txiki batzuk... beti jostakutan, gorputza gehiegi nekatu gabe.

K.: Atletismo munduan daramazkizun 14 urte luze horietan, zenbat garaipen izan dituzu?

M.L.I.: Espainiako txapelketak 7 irabazi ditut, eta denak Espainiako errekorrekin, 10, 20 eta 42 km.tan. Gipuzkoako txapelketak berriz, ahaztuta daukat zenbat izan diren.

Europan txapelketetan ere dexentetan parte hartu dut, eta posturik onena 11.a izan da,

Munduko txapelketan berriz, 4 aldiz egon naiz, eta posturik onena 19.a izan da. Hain maila altura iritsi eta gero, nire ilusio haundienetako olimpiadetan parte hartzea izan da, baina ez da posible izan. Olinpiadetara joateko behar nuen minimoa egin eta gero, ez nuen joaterik izan, niretzako izugarrizko pena izan zen. Bartzelonako Joku Olinpikoetan ere, ez nuen parte hartzerik izan.

K.: Minimoa egin eta gero, ze arazo egon zen olinpiadetan ez egoteko?

M.L.I.: Bost edo sei urte dira, Seulen olinpiadak ziren, bezperan munduko txapelketa bertan korritu genuen, eta 19. postua egin nuen. Espainiatik egin den posturik onena. Marka honekin, zuzenki olinpiadetara pasatzeko aukera guztiek nituen, baina ez zen horrela izan. Espainia mailan beste neskarik ez zegoela, eta gero, Madrilgo federaziotikan deitu zidaten esanez. Seulako bidaia garestia zela, eta batzuk hemen geratu beharra zeukatela. Batzuk horien artean, ni nengoien. Lur jota gelditu nintzen, hiru hilabetez prestatzen ibili eta gero, ez zitzaidan logikoa iruditzen. Markak egiten nituen, baina

"Kanpoko batek baino zaitasun gehiago izan dut"

BEGONA

Taberna-Erretekia

Urdaneta auzoa Tfnoa: 58 08 41



Benta Berri
Euskal sukaldaritzan berezitasuna
Tfnoa: 83 42 75

Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,
ganadu eta abarretarako

Tfnoa: 83 48 59

Gurutze santuaren
testigu bikaiña,
izkuntza guzietan
izlari mingaña...
Gau beltzean pekatu
egin dezu baña,
kementsu eman ere
odolez ordaña.

Galile-itxasoan
zurekin bezela,
poparian da gure
fededun batela.
Kantauri gaiztoaren
arrantzale gera...
Bedeinka zazu gure
aurtengo kostera.

Zerutik gorde zazu
gure sinismena,
eguneroko ogia
gorputz-animena,
oitura garbietan
euskeria lenena,
Jainkoa gurtutzeko
eman zigutena...

Izurdeak arraia
irentsi bear du...
Etsaia urbil da ta
gugatik erregu...!
Sarri egiñagatik
itxasoak orru,
zure ontzi-barruan
babes oma degu.

Bateltxoak kulunkaz
itxas urdiñean,
gaba igaro ondoren
alperrik lanean...
Arrantzaleak goibel
datoz arraunean;
irripariez begira
Jesus baztarrean...

Jaunak piztu du aien
aula zan fedea
Goazen itxas-barrura,
zabaldu sarea...
Arrai bat ez dabil gaur,
alperrik joatea...
Baña beteko degu
zure agintea...

Lemazai zutitu da
Jesus agintari,
Andres anaiarekin
Simon arraunlari...
Obeitu ordurako
dezaken itzari,
sareak lertzen datozi
arraia ugari.

Batelak ezin artu
ango arrai pilla...
ojuka laister dira
laguntzaren billa;
ontziak gañeztuta
dakarten murgilla...!
Nor ote da Jaun ori
orlako abilla...?

Pedro iztu da ta,
belaunikatuaz,
diyo: Pekatari naiz,
nigandikan zuaz...!
Arrai-tresnak utzita,
bularrean juaz,
guztiak Jesusekin
betiko dijuaz.

FABIAN LOIDI

SAN PEDRO 94

FESTA-PROGRAMA

SAN PEDRO 94

ERAINAK 24. OSTIRALA

SAM JOAN EGUNA

- 22:30 Dantzaldia Antilla taberna aurreko plazatxoan, honako taberna eta jatetxeen babesarekin: Kolon Txiki, Bordatxo, Il Gelatto, Xixario, Itsas Ondo, Antilla, Arkaitz, Gabon, Loretxu, Itzala, Sarasua eta San Juan Bide.

ERAINAK 26. IGANDEA

- 10:00 Herri-krosa, plazan hasita
16:00 Herriko pilota-txapelketaren finalak frontoian

ERAINAK 28. ASTEGARTEA

- 19:00 Txistulariak eta buruhandiak kalejiran
19:30 Kalejira Orioko txarangarekin
23:30 Ikerriña altxatzea, Orioko txarangarekin
24:00 Rock-kontzertua plazan, "Ehun Kilo" taldearekin.

ERAINAK 29. ASTEAZKENA

SAM PEDRO EGUNA. EUSKAL FESTA

- 10:00 Txistulariak kalejiran eta, ondoren, plazan
10:30 Meza nagusia elizan

JL GELATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

Gorokki

Goztetx-kaletxoa

AZKUE

Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20



ORRAZKERAK

TFNOA. 83 12 61

K2



R A M I R O

Ekonzia erreportorialak, Argazkiak eta bideoa. Presupuestuak konpromezurik gabe
Telefaxa: 83 10 48

SAN PEDRO '94

- 10:45 Dultzainajoleak kalejiran eta, ondoren, plazan
11:00 Trikitilariak kalejiran eta, ondoren, plazan
12:00 Sardin-jana, alboka, trikitilariak eta txuntxurroak
13:00 Bertsolariak plazan
14:30 Herri-bazkaria plazan, txiste-kontalari eta bertsolariekin
17:00 Herriko dantzarien emanaldia plazan
19:00 Joxe eta Ramontxoren kantaldia plazan
20:30 Salatxo abesbatzaren kontzertua elizan
22:00 Musika plazan, Drindots taldearekin

*Goiz eta arratsaldean plater-tiroketa izango da
Antilla aldean*

- 10:00 Txistulariak kalejiran
11:00 Trikitilariak kalejiran
11:00 Umeentzako jolasak plazan
12:00 Nekaezinak txaranga kalejiran
13:00 "Baloiaaren magoaren" erakustaldia plazan
14:00 Bazkaria Altzerrri jatetxean 70 urtetik gorako oriotarentzat
16:00 Futbitoko finalak frontoian
18:00 Pailazoak plazan:
Azkona taldea
18:00 Nekaezinak txaranga
22:30 Dantza plazan:
Egan taldea

**ZASS**
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA
SOLARIUMA
PERFUMERIA
San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

hemendik aurrera
depilazio elektrikoa
ere eskaintzen
dizuegu

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Godari, 46 ☎ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

daddy

BAKERO, NIKI,
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

ertza
USAINEGIA

SAN PEDRO '94

UZTAILAK 1. OSTIRALA

ARRANTZALEEN EGUNA

- 10:00 Txistulariak kalejiran
10:30 Arraun jokoa, plaza parean
11:00 Trikitilariak eta Tximeletak txaranga kalejiran
11:00 Poney-ak Ikastolako zabalunean
11:30 Rokodromoa frontoian
16:30 Rokodromoa frontoian
18:00 Herri-kirolak plazan
19:00 Judo eta gim-jazz erakustaldia frontoian
23:00 Su artifizialak: Zaragozana piroteknia
23:30 Dantza plazan: Irusta taldea

13:00 Zarauzko Musika Bandaren kontzertua plazan

17:00 Emakumezkoen eskubaloia frontoian: Orioko ikastola Usurbilgoaren kontra
23:00 Dantza plazan: Jokaldi taldea
23:00 Su artifizialak: Zamorano Caballer piroteknia

UZTAILAK 3. IGANDERIA

10:30 Trialsineko txapelketa hondartzan
13:00 Azagra herriko "Virgen del Olmo" abesbatzaren kontzertua elizan

UZTAILAK 2. LARUNBATA

- 10:00 Txistulariak kalejiran
11:00 Trikitilariak kalejiran

Arrantzari buruzko argazkien erakusketa izango da Ikastolako beheko plantan, ekainaren 24an hasi eta uztailaren 3a arte.

Eskulanen erakusketa Udaletxeko Pleno Aretoan.

**Marisko
Biberoak**

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak**
Ostalaritza Zerbitzua

**AXUN
JANARIAK**

Telefona: 83 59 02

**CARPINTERIA ORIO, SL
aroztegia**

Tel. 83 56 07 eta 14 08 83

Etxe barruko dekorazio-lanak ere egiten ditugu:
proiektua prestatu, bisatu eta abar.

Horrez gain, era guztietako arotz-lanak egiten ditugu:
ateak, tarimak, parketa, neurrira egindako muebleak...

zidaten ezertarako balio. Moral zeharo jeitsi zitzaidan, eta ilusio guztia galdu nituen. Pena haundieta hartu nuen, garai batean korrikalari izandakoak eraman zituztela jakin nuenecan.

K.: Aurrera begira ze txapelketa dauzkazu buruan?

M.L.I.: Uztailaren 23an, Espainiako txapelketan parte hartzeko asmoa dut. Bertan korritzeko, 10.000 metrotan minimo bat egin beharra daukat, baina pentsatzen dut ez dudala inongo arazorik izango. Espainiako txapelketa Donostian bertan da, eta hemengo goroaren laguntza-rekin, zerbait egiteko itxaropena ez dut galdu.

Uztailletik abuztua bitartean, kilometroak egin nahi nituzke. Hometarako oso ona izango nuke, herriko festetan antolatzen diren karrera popular horietan parte hartzea, 20 kilometroko karrerak baldin badira orduan eta hobeto. Nire helburu garrantzitsuena hauxe da, lehendik dauzka-dan markak hobetzen joatea.

K.: Espainiako txapelketa honetarako, preparazio be-

rezirk egiten ari al zara?

M.L.I.: Berdintsu, eta gerorazken egunetan zertxobait gehiago. Goizean 8-10 km.



*Espainiako maratoi errekorra hausti zueneko lasterketa.
Donostian 87ko urrian*

egiten ditut hemen eta arratsaldean Donostiaru jouten naiz pistan ibiltzera.

K.: Euskal Herriko emakumezko atletak ze mailatan ikusten dituzu?

M.L.I.: Orain dela urte batzuk oso maila onean ibili gi-

nen. Bost edo sei bat euskaldun, betiurren postuetan izaaten ginen. Orain berriz, azkeneko bi urte hauetan, ez da inor berririk sortzen. Gainera, eskoletatik ere ez diete inongo laguntzarik ematen. Gauza benetan oso motel dago, urte

batzuk pasako dira, beste berriren bat sortu arte.

K.: Osasuna aldetik ondo ibiltzen zara, urte askotan jarraitzeko asmea al duzu?

M.L.I.: Ez, nik uste dut nire mailarik onenera iritsi naizela. Antzermaten diot gainera, lehen baino askoz ere zailagoa egiten zait aurreko marka hobetzea. Horretaz gain, ilusio eta morala ez dauzkat lehengoak. Gustora nago urte hauetan egin dudan lanarekin, hala ere pentsatzen dut. Madrilen, Bartzelonan, edota beste lekuaren batean bizi izan banintz, laguntza gehiago izango nituela. Niretzako hori oztopo haundia izan da, ez dut inongo laguntzarik izan Espainiako Federaziotik. Hemengo Federazioa saiatu den arren, ez da medio ekonomiko askoren jabe, eta horrek guztia oztopatzan du. Nik uste dut, zailtasun gehiago izan ditu dala nik, beste kanpoko batetik baino.

Ez dut denbora askoz gehiagoz jarraitzeko asmorik, Osasun aldetik ondo ibiliko hanintz, denboraldi hau eta hurrengoa ere osatuko nuke. Bestela berriz, aurten negua pasa, eta uzteko asmoa dut.

SEGA jatetxea
ezkontzak, bataioak,
komuniak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

AIA

ANDAZARRATE JATETXEA

Uztailaren 10ean eguerdiko 12etan

**GIPUZKOAKO SEGALARIEN
TXAPELKETARAKO PUNTUAKETA**

Andazarrate jatetxearen zelaian

Intxusa-Bekoa baseria Andazarratuko gaima Asteasu Tfnoa: 69 04 42

Landa nekazari tresnak

Nekazari tresnen salmenta eta konponketak.

FERRARI eta MASSEY FERGUSON traktoreak, RAPIT eta RASANT segadorak eta lleradoreak, JONSERED motosierrak, PARTNER desbrozadorak

Tfnoa: 83 59 28

ARRUTI

Txuleta erre bikainak

Gozategi, 15 Tfnoa: 83 47 70

Dema apustuen emaitzak

Ekainaren 4an Elastondo eta Urkidizarek apostua jokatu zuten Aiako dema plazan. Lehendabizi Elastondo jardun zen, 30 plaza eta 2'5 metro eginez; ondoren, Urkidizarek 26 minutu eta 10 segundutan aurreko marka hobetu zuen, eta beraz, irahazlea izan zen.

Igeriketa ikastaroa hastera doa

Aurten ere herriko igerilekuak igeriketa ikastaroak emango dira. Irakasleak ia-zko berberak izango dira eta kuota 2.100 pezetakoa da.

Interesa dutenek Kultur Etxean eman dezakete izena.

Bidaia Errioxara

Uztailaren 16an leku hauetan eragutreko aukera izango da; Haro, Santo Domingo de la Calzada, Ezkarai eta Gasteiz, Bazkaria Ezkaraien izango da. Bidaia eta bazkariaren prezioa 2.000 pezetakoa da. Izena Gizarreta-Ongizate zerbitzuan edota Kultur Etxean eman daiteke.



Agorregiko burdinola eta errotak

Agorregiko burdinola Erdi Arokoa da. 1530 inguruau itxi eta bertan behera utzi zen, hala ere errota batek lanean iraun zuen eta XVII. mendean beste bat ezarri zen. Geroztik, 1754an planta berriko konplexu hidraulikoa eraiki zen. Geroago zerra bat instalatu zen, hau ere hidraulikoa eta azkenik errota eraiki zen burdinolaren oinean.

Berritzeko obrak 1986an hasi ziren eta 1991ko abenduan bukatu ziren. Urte hauetan zehar garbitu, ikerlanak egin, konplexuaren ezaugarriak berritu eta XVIII. mendearen erdialdean diseinatu zuten bezala funtzionatzen jarri ahal izan da.

Igandero eguerdiko 12etan martxan jartzen dira errotak eta burdinola. Bertara kotxez joan daiteke Manterola baserriko bidetik, edo oinez bai Aiatik eta baita Oriotik ere. Errota jatetxearen inguruan dagoen bidea hartuz.

KANUA
**Gure herriko janari
tipikoak**

Tfnoa: 83 43 22



Zumar-Alde etxea

Tfnoa: 83 39 91

A
ABERENA

PENTSU KONPOSTUEN BANATZAILEA

TXUKUN s.l.

Lorazantza

Basoetako esplotazioa eta lorralana

Tfnoak: 13 07 69/908-17 93 16



ERROTA JATETXEA

Eztei ospakizunak

Banketeak

Karta zabala

Eguneko menua (Lanegunetan)

Oheak

Tfnoa: 83 54 65



Iñaki Andres eta Asier Gozategi

Epaituak izango diren lehenengo intsumiso oriotarrak

Intsumisioa. Orain dela urte batzuk inork gutxik entzundako hitz hau, orain denon ahotan dago, intsumisioaren fenomenoak indar handia hartu duelako gure gizartean. Gero eta gehiago dira soldaduzka egiteari uko egiten dioten gazteak. Epaietak intsumisioa dela-eta ia gauza arrunt bihurtu da, eta ondorengo hilabeteetan Orioko Iñaki Andres eta Asier Gozategi gazteak epaituak izango dira soldaduzka egin nahi ez dutelako. Orain bi hauek dira, baina ez dira Orioko intsumiso bakarrak.

ANA ITURAIN

KARKARA: Une honetan zer egoeratan zaudete, noiz epaituko zaituzte?

Iñaki Andres: Hasiera batean A Coruña epaitu behar minduten hil honen hogeita

batean, soldaduzka El Ferrolen egitea tokatu zitzaidalako, baina trasladoea eskatu nuen Donostian epaitua izateko. Erantzuna orain jaso dut eta baiezkoa izan da, beraz. Donostian epaituko naute. Orain ez dakidana da noiz izango den epairesa. Beharbada uda-

ra pasa eta gero, baina ezin dut ezer esan. Pentsatzen dut tarte bat daukatenean epaituko nau-tela. A Coruña izan buzen epaieta ni ez nintzen haraino joango.

Asier Gozategi: Nik uztailaren hamaikan izango dut epaieta. Hiru urtetan ez dut

ezer jaso eta orain dela hamabost egun Orioko juzgadura joateko eskutitza jaso nuen eta han paper bat sinatu nuen. Epaietarako abisatzen zidan paper horrek.

K.-: Erabaki al duzue zer egingo duzu, epaietara aurkeztu edo ez joan edo...?

A. G.-: Nik ez dakit nirekin batera besteren bat epaitu behar duten edo bakarra nuzien. Abokatuarekin hitz egiten dudanean, besteak egiten ari direnaren arabera nik ere hori egingo dut. Horretarako liberrauta dagoenarekin hitz egin eta bere esku utziko dugu. Erabakitzan bida denak joa-

tea joango naiz, baina denok gauza bera egin behar dugu.

L.A.-: Donostian ziur aski bai, baina ez dakit azkenengo momentuan zer egingo dudan. **K.-:** Zergatik zarete intsumisoak, noiz erabaki zenuen hori eta zer egin zenuten intsumisoak izan behar zenutela erabaki zenutenean?

L.A.-: Nik ez diot sentidurik hartzen bederatz hilabete alperrik gastatzeari, beraz ikusi nuen bide hau zegoela eta bide egokia irudituitzaidan denbora alperrik ez galtzeko

A.G.-: Ni intsumiso egin banintzen izan zen soldaduzkari zentzurik ikusten ez nioluko. Agintean daudenak ere ez diote zentzurik ikusten. Badakite hori alperrik dagoela, bakarrik medailak dauzkaten batzuek bere bizi-modua hortik daukateko horrekin jarraitu nahi dute. Zentzurik edukiko balu profesionala izango litzateke.

Nik uste dut denok batera uko egingo bagenio soldaduzkara joateari, zentzurik gabeko gauza delako, irtenbidea surkituko luketela. Guk zigorrta betetzen badugu ere, ondorengoeek eskertuko dute.

Nire ustez intsumisoak orain indarra handia hartu du. Orain egiten ari den propaganda —hau egingo dute edo bestea egingo dute— jendea beldurtzeko da.

K.-: Batasunik ba al dago intsumisoen artean erabakiak hartzeko momentuan. Batzuk kartzelan daude eta hirugarren graduari uko egin diote beste batzuk berriz, ez. Nola ikusten duzue hori?

A.G.-: Garrantzitsua da abokatuak eta liberatuta daudenekin egotea, horiek daki telako zer gertatzen ari den. Lege bat ez dagoenez, gauzak ez daude garbi, egunero aldatzen ari dira.

Gu intsumisoak egin bagara onartzen dugu arriskua daukagula, agian kartzelan sartuko gaituztela. Hori be-



Iñaki: "170 intsumiso daude kartzelan eta jendeak paso egiten du"

hintzat burutik pasatzen zai zu.

K.-: Zuen oraingo lanetan eraginik ba al du intsumiso izateak, ez dute gaizki ikus ten lan ordnak galtzea epaketa dela edo beste gauzak direla eta?

L.A.-: Ez, nik ez dut arazo rik.

A.G.-: Nik ere ez, baina magisteritza ikasten ari diren ezagun batzuk adibidez ezin izango dute irakaskuntza publikoan lanik egin indarrean jartzen baditzte orain dela gutxi iragarritako neurriak, intsumisoak ezin izango direla funtzionarioak izan, alegia. Hori eta gidatzeko karneta kentzearena zentzugabekeria iruditzen zaizt.

K.-: Talderen batean sartuta al zaudete, bilerarik egi ten duzue, noñako harrema-

nak dituzue beste intsumisoekin?

L.A.-: Gure artean ez dago batasun handirik, bilerak eta egiten dira, denok gauza bera egiteko. Nafarroako intsumisoekin bilerak egin izan dira, baina gehiegi ez.

A.G.-: Intsumisoa denak kezka hori badauka eta saiatzen da egunkarien bidez edo informatuta egoten, gauzak nola dauden jakiten, baina denok elkarrekin egon eta gutxi egiten da. Batzuk hai, buru belarri horretan daude.

K.-: Orion zenbat intsumiso zarete?

L.A.-: Dozena bat edo izango garela uste dut.

K.-: Zer egin behar du intsumisoa izan nahi duen batetik, zuek zer egin zenuten?

A.G.-: HBko sedean Jarrainko liberatu bat dago infor-

mazioa emateko. Horrek esaten dizu ze paper bete eta ze gauzak egin. Nik behintzat horrela egin nuen.

L.A.-: Bai, nik ere hori egin nuen. Denontzako abokatu bat dago eta horrek informazioa ematen dizu.

K.-: Zer iruditzen zaizue objezioa?

A.G.-: Nire helburua soldaduzka ez egitea da, eta ordezko zerbitzua berdina da. Bat izan edo bestea izan berdina da niretzat.

K.-: Lehen entzuten zen "soldaduzka honi ez" leloa, ados az zaudete horrekin?

L.A.-: Bai, entzunda daukat hori. Batzuk Euskal Herriko ejerzitoan soldaduzka egiteko prest egongo lirateke eta ez ejerzito espainiarrean. Nik behintzat ez nuke ez butean eta ez bestean egingo.

K.-: Ze iruditzen zaizue Udal plenoan erabakitako?

I.A.-: Nik uste dut denek esaten dutela intsumisoen alde daudela eta apoiatu egiten guitzetela, baina gero ez dute ezer egiten. Hasieran sei sartu zituzten kartzelan eta jende guztiak esaten zuen, nola egongo dira sei intsumiso kartzelan? Baina orain 170 intsumiso dago kartzelan eta jendeak paso egiten du.

A.G.-: Denek intsumisioaren alde hitz egiten dute. Neskekin hitz egiten duzu eta ni mutila banintz intsumiso izango nintzateke esaten dute, lehen soldaduzka egin zutenek ere hori esaten dute, orain ez luke tela egingo, alderdi politikoak eta denek intsumisioaren alde daude, baina gero ez daukazu leguntza.

K.-: Ze laguntza mota eskatuko zenuke?

A.G.-: Udaletxeak adibidez intsumisoek izanditzaketen zigorrei aurre egiten lagunduz. Alkateak bere burua eskaini du in-tsumisoen ordezkarri izateko, baina ba al daki ze egoeratan dagoen intsumisioa? Orain egoera batetan dago eta datorren astean bestean eta pertsona bat jarri behar da buru belarri horretako. Galdera guztiak erantzoten jakingo duena. Intsumisori buruz jendeak ez daki asko, nik neronek ere ez dakit zer naizen. Gauzak aldatzen joaten dira eta pertsona bat jarri behar da informatuta egongo dena eta berarengana joaten denari informazioa eman, paper hauek bete behar dituzu, hau egin behar duzu edo bestea egin behar duza esango duena. Ez dut esaten egunero egon beharko lukeenik, behar bada astean bitan eta Orion ez badago horretako pertsona aproposik kanpotik etortzea badauka.

K.-: Eta kaleko jendeak ze modutan lagun dezakegu?

A.G.-: Informatuta egonda. Udalak jarri behar duen informazio bulego horrek hi-

tzaldi batzuk eman eta informatu. Jendeak jakin behar du intsumisioa zer den eta zer egoeratan dagoen.

K.-: Intsumisioa zer da?

A.G.-: Soldaduzkaren aurrean intsumiso izatea.

Nik jendeak informatuta egon behar duen esaten dudanean esan nahi dut baita ere jakin behar duela zenbat intsumiso dagoen kartzelan, agintean daudenak zer egiten ari diren, eta abar. Garbi dago agintean daudenak ere beldur-tuta daudela. Konturatzen ari dira intsumisioa ez dela lau txoroen mugimendua baizik eta gero eta zabalagoa dela eta gero eta indar handiagoa duseña.

K.-: Zalantzatan dauden gazteei, intsumiso izan edo ez izan, edo soldaduzka egiteko edadean daudenei zer esango zeniekete?

I.A.-: Ez bildurtzeko esango nieke, animo eman behintzat. Esango nieke ez soldaduzkara joateko.

A.G.-: Gu egiten ari garen borroka hau ez da guk soldaduzka ez egiteko, baizik eta ondorengoentzat ere ari gara borrokatzan. Gure borroka honek ez luke izan behar gazzteena bakarrik, gizarte osoarena baizik, bai emakume eta zaharrena ere, antimilitarismoa ez delako soldaduzkara joan nahi ez izatea bakarrik. Batzuek uste dute intsumisoak soldaduzkara joan nahi ez duten lau pasota direla, baina hori ez da horrela.

Jende askok intsumisioa kartzelarekin erlazionatzen du, baina hori ez da horrela, gutxiengoa joaten da kartzelara. Ez da beldurrik izan behar intsumisoa izateko. Asko gara borroka honetan eta ni

oso baikorra naiz. Bai plano pertsonalean eta bai mugimendu osoari begira. Uste dut gaunazkak ondo aterake direla.

Gazteak ez du soldaduzka egin behar bere etxean beldur direlako eta presionatu egiten dutelako. Arrazoia duela argi ikusten duenak ez du soldaduzka egin behar. Gurasoekin hitz egin eta kontutan eduki lehen esan dudana, intsumisioa ez dela kartzela.

I.A.-: Bai, arrazoia duzu, aurreko KARKARAn epaike-taren berri atera zenetik jende asko hurbildu zait nire egoera-ren berri galdera egitera, eta beti kartzela hitza aipatzen da. Baina bi kontzeptu horiek se-paratu egin behar dira. Garbi dago hori buruan daukazula, baina ez duzu beldurra eduki behar.

Asier: "Gure borroka ez da guk soldaduzka ez egiteko bakarrik. Ondorengoentzat ere ari gara borrokatzan"



Txurrukako albergea astialdirako aukera ederra

Oriolarrok beti ezagutu izan dugu Oribarzarko bazter hori jendez beteta, joan-etorrian ibiltzen ziren taldeekin. Aspalditxo uniforme urdin eta txapel gorriko OJEko (Organización de Juventudes Españolas) gazteak hurbiltzen ziren, azken urteotan ordea, uniformerik gabe eta askoz ere builosago aritzen diren neska-mutilek bete ohi dute.

ANA G. DE TXABARRI

Txurrukako albergea 1942an eraiki zuen Falange Española y de las JONS erakundeak. Izena falangistek jarri zioten, Trafalgarro borrokan nabarmendu zen Kosme Damian Txurruka Almirante mutrikuaren ohoz. Falangeak jarritako izena izan arren bertako arduradunek ez zuten gero aldatu nahi izan, polita zelako.

Lehen alberge hura ez zegoen oraingooren lekuau, pixka bat barrualderago baizik. Alberge berria, orain ezagutzen duguna, 1970ean egin zuen Secretaria General del Movimiento delakoak, 1976an Espainiako Kultur Ministerioaren eskutan gelditu zen 1980an Euskal Gobernuak hartu zuen arte. Ondoren, LTHren aplikazioarekin Di-

putazioaren eskuetara pasa zen. Albergea gaur egun, Foru Aldundiko Gaztedi eta Kirol Sailaren menpe dago.

Denbora guzti horretan kanpamendu gisa erabili izan da, salbuespen batekin: 1979an Guardia Zibilak Orio-k Udaletxea utzi zuenean Txurrukan eman zituen hamar bat hilabete, 1980ko uztailera arte.

Txurrukako langileak

Batez ere uda garaian betetzen da eta bertan dauden langileak, ia gehienak, oriotarrak ditugu. Hauen eskutan geratzen da, gure artean egun batzuk pasatzera datozenai, egoñaldia ahalik eta bizi eta alaien

egiteko ardura.

Langile hauestatik batzuk fijoak dira, hau da, zabalik dagoen denboraldi osoan ari dira lanean: bi sukaldari —Maribel Agirre eta Ana Elizalde—, mantenimendurako arduradun bat —Estanis Sarasua—, administraria —Idoia Urkizu— eta zuzendaritza lanak betetzen ditun Pello Orbañanos. Udako hilabeteetan laguntza izaten dute: Amaia Arruti sukaldari-laguntzaile, eta Antónita Arruti, Juanita Etxaide, M. Pilar Arrati eta Arantxa Zendoya garbitzaileak. Guztien artean, iaz, 26.500 «spentsio osoko» zerbitzu eskeini zituzten, zabalik dagoen hamar hilabeteran, hau da, batzbeste eguneko 100 gosari-bazkari-merienda-afari. Azkar esaten da.

Eskaintzen dituen zerbitzuak

Mota askotako jendea hurbiltzen da, normalean taldeka, eta ez dago inongo mugarririk adinari dagokionez. Guztienetz 12 laguneko taldea osatu, 30 urtetik beherakoak izan eta elkartea baten izenean etorriz gero, prezio berezia egiten zaie: eguneko 1.400 PTA. «spentsio osoa», lo egitea eta instalazioen erabilpenagatik. Tarifa hau handiagoa da Euskal Herriko kampoko taldeentzat eta 30 urtetik gorakoentzat.

Otsailaren 1etik azaroaren 15era arte egoten da martxan, baina sasoi onena martxotik urriira arte izaten da. Garai hau da lanik handiena ematen due-





na eta gelditu gabe jarduten dira Maribel eta Ana saskaldean. "Oso gustora joaten dira hemendik, noski, beti gustoko jana jarzen diegueta..." dio Maribelek, eta egia dela frogatzeko, berrehala gondidatu gaitu buzkaltzen geratzeko. Ondoko Oribarzar baserritik ekartzen dituzte produktu asko —patata, tomatea, letxugak...— eta, gainontzekoa, banatzaile nagusien al-mazenetatik, arraina ezik, hau Oriokou izaten delako. Guzti honekin, jaki goxo eta oso etxekoak prestatzen dituzte. Udan, gainera, Udalekutara bai Oriora eta bai Getariara etortzen diren taldeentzat ere janaria preparatzten dute.

Jangela zerbitzuaz aparte, Txurrukak 18 logela ditu —14 hamarru lagunenizat, eta 4 zortzikoak—, lau egon-gela jolas eta eskulanak egiteko, saski-haloian jokatzeko bi zelai eta polibalentea den beste handi bat, denak belar artifizialarekin, eta estali gabeko pisztina eder bat, Sukalde, al-mazena eta bulegoek osatzen dute beste guztia.

Paseatuz eraman gaitu Pello Orbañanosek dena ikusteara. Larogei hauei bueltaka ibili

ditugu denbora guztian, haloia hartu, korri batera, korri bestera. Gaur bertan heldu dira eta Irundik datozen egun batzuk pasatzera. Txurrukatik eskurtsioak egiteko aukera ugari izango dituzte, Pagoetako parkera ezagutu, esate baterako, Agorregi bisitatuz, edo Getariaraino oinez joan han benta eta baporeak ikusiz, edo Oriora hurbildu Goiko Kale inguruak niatuz, guzti hauek egiteko informazio eta ahalbideak ematen baizaizkie.

Errio ondoan egoteak ere beste aktibitate batzuk egiteko aukerak eskeintzen ditu, batez ere uda partean, eta horrela, Arraun Elkartearen laguntzarekin, bai piragua eta bai arraun ikastaroetan parte hartzeko aukera izaten dute Txurrukara etortzen direnek. "Eskeintza hauek denboraldi osorako izan nahi genitzuk" esplikatu digu Pellok. Hondartzak bakarrik jolasieko era-

biltzen da, nahiz eta, marea gora dagoenean, bainatzeko aukerik ez galdu askok. Bainua hartu eta gero, segituan dutxatik pasatzeko agindua dute umeek, uraren kalitatea dela-eta, Osakidetzak hori aholkatzen baitu.

Txurrukako hondartza

Igandero jende asko etortzen da plaiu honetara eta, lehen arazo handiak izaten zituzten han gerutzen zen basura guztiarekin. Baina politikopoliki eta, batez ere, Orioko Udalak jarri duen garbitasun zerbitzuei esker —komunak, taberna, kontenedoreak— geroz eta kontzientzi handigourekin jokatzen du jende honek eta askoz ere txukunago geratzen da. Hala eta guztiz, Pellok esan digunez,

kotxeak aparkatzen laguntzenko eta tokia gehiago errespetatzeko ez litzateke guizki etorriko Udalak ardura gehiago hartzea, baina ez dago oso garbi zein Udal eskatu behar zaion hori, Aiakoari ala Oriokoari.

Hainbeste jenderen joan-etorriak gertaera bitxiak utzi ditu Txurrukako memorian. Oraindik ere parre egiten dute nafar irakasle batzuen apuruaz pentsatzerakoan herrira iritsi eta bi ume gutxiagorekin zirela konturatzen zirenean, biak lasai asko Txurrukan azaldu ziren bitartean. Edota, beste hantean, inor ez zutelakoan etortzeko, hingileak jai hartu zutenean, eta Diputazioak abisatu gabe, talde oso bat agertu zenean eta korrika eta presaka bueltatu behar izan zutenean.

Buelta bidea egitea guri tokatzen zaigu oraingoan. Etorzko errio ertzetik etorri gara, benetan egoera penagarian dagoen bidetik. Eta autobus handiak hemendik ibiltzen direla pentsatzea ere. Noiz arte? Buelta Txurrukakoek egiten duten bidean egin dugu, alegia, Zarautz aldetik joinez.

Bataz beste eguneko 100 pentsio osoko zerbitzu eskaini zituen Txurrukak iaz

"EUSKARAZ GAZTE"

II. LITERATUR LEHIAKETA

O i n a r r i a k

- 1.- "Euskaraz, gazte" II. literatur lehiaketaren helburua Orioko gazte-jendearen artean idazteko zaletasuna suspertzea da.
- 2.- Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3.- Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta, beste hizkuntzaren batean idatzia egon eta lehiaketarako euskaratutakorik ere.
- 4.- Lehiaketan parte hartzen duten norbanakoek Oriokoak izan behar dute edo Orion bizi.
- 5.- Lehiaketan parte hartzeko gutxienez hamalau urte izan behar dira eta gehienez hogeita bederatzi.
- 6.- Lanen luzera librea izango da.
- 7.- Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta olerkia.
- 8.- **Lanak aurkezteko era:**
Lanak makinaz idatziak aurkeztu beharko dira.
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du eramango agerian.
Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
- 9.- Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 10.- **Sariak.**
Ipuinen modalitatea.
1. saria: 50.000.- PTA
2. saria: 25.000.- PTA
3. saria: 15.000.- PTA
4. saria: 10.000.- PTA
- 11.- **Olerkien modalitatea.**
1. saria: 50.000.- PTA
2. saria: 25.000.- PTA
3. saria: 15.000.- PTA
4. saria: 10.000.- PTA
- 12.- **Epaimahaia.** Epaimahaia Udaleko Euskara-Batzordeko kide batek, KARKARA aldizkariko kide batek, Udal Euskara-Zerbitzuko Teknikariak eta euskaltegiko irakasle batek osatuko dute.
- Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 13.- **Lanak aurkezteko tokia eta epea.** Lanak Udaleko Euskara-Zerbitzuan aurkeztuko dira. Lanak aurkezteko azken eguna **urriaren 28a** izango da.
- 14.- Orioko Udalak berea izango du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

Oribarzar

Oribarzar baserria ezaguna da oriotarren artean, besteak beste bertako lurretan ematen direlako, zenbaiten arabera, "munduko babarrun eta piper morrorik onenak".

Txurrukako albergearen atzean zabaltzen den haran txikian kokatua dago Oribarzar, Torretxo baserriarekin batera. Oso leku babesia da eta hezetasun handikoa eta hori omen da hango barazkien kalitate apartaren arrazoia.

JABIER ZABAleta

Oribarzarko badian —gaur egun baino handiagoa zena, ura barrurago iristen baitzen— tropa ingelesak atseden hartzena gelditzen omen ziren XVII. mendean. Mende honren bukaera aldera eraiki omen zen baserria. Lehengoko berririk ez dutela aurkitu esan digu bertan jaiotza den Jose Migel Makazaga Orioko alkateak. Jose Migelen surrekoak betidanik bizi izan dira baserrian. Hamargarren generazioa da berea eta baliteke gehiago ere izatea haina, hain zuzera joanda, paperik ez da jada agertzen.

Izenari dagokionez, ORI-prefijoia OLA-ren balio berekoa da eta, hortaz, badirudi Oribar 'Ola dagoen ibarra edo harana' esan nahi duela. Ingru hartan garai batean burni-



lana egiten zela garbi dago, gaur egun ere, hango erreka bazterretan erruz aurki baitaitezke birutak eta bestelako burni-zatiak.

Oribar baserria Narrosko markesarena da, Torretxo eta inguruko beste baserri asko bezalaxe. Aipagarria da orain dela gutxi arte baserriarrek garitan ordaintzen ziotela markesari errenta. Errenta ordaintzeko urteko gari-kopuru jakin bat eman behar zitzaiotan markesari eta, askotan, zimaur-gurdiren bat ere bai harren jardinatarako. Itxura denez, baserriarrek lan handiak izaten zituzten errenta hain zuzeneko. Aspaldiko kontrua direla ematen duen arren, hori horrela egin izan da 1957a arte. Urte hartatik aurrera dirutu ordaintzen dute errenta.

Baserria handia da eta beti —bertakoek gogoan dutenek behintzat— bi familia bizi izan dira bertan. Adierazgarria da orain dela gutxi arte —hogeit bat urte-edo— bi etxebizitzak bat eginda egon direla, eta batetik bestera pa-

satzeko ez zela inolako zerrailurekiko aterik pasa beharrik. Gauregun ere bat eginda daude sapai eta mandioak. Horrek adierazten du bi familien arteko harremanak ez direla izan horrelako beste hainbat baserriren izan ohi diren bezain gatazkatsuak.

Oribarzaren jaiotakoa da *Orioko haundiya*, izena garaiko oriotarrik handiena iza-teari zor ziona. Ezaguna da *Orioko haundiya* bi sanjoandarren kontra jokatu zuen batel-estropada, Oriotik Donostiaraino. Oribarzarko seme hari jarritako ezizenak berak argi erakusten du, bestalde, hangoek oriotartzat dutela beren burua, nahiz eta administrazioz aiarrak izan.

Aipatzeko da baita ere, ez baita ohikoa, Oribarzarkoek, oraintsu arte, urez egiten zutela Oriorekiko harremana hamarretik bederatzitan, lehorrerek bidea oso txarri baitzen. Bidea, gaur egun ere, nahiko gaizki dago eta askotan Zarauztik barrena etorzen dira Oriora bertakoak.

Txurruka kanpamendua hain gertu egoteak ere anekdota ugari sortu dizkie. Jose Migelek gogoan du oraindik, esate baterako, nola osatzen zuten gaztetan beren urteko bainujantzi-premia falangisten kontura; alde egin behar zuten egunaren bezperan sekatzen jarritako *traje de baño* do-toreak —Orion artean inork erabilten ez zituenak— *hartu* egiten zituzten Torretxoko eta Oribarzarko mutilek.

Gaur egun familia bakarra bizi da Oribarzaren, Aizpuruatarrak; Juan Jose eta Juanita matrimonioa, Olatz alabarekin eta Juan Joseren anaia, Jose Ramon. Gregorio Makazaga eta M. Luisa Loidi, Jose Migelen gurasoak, bertan enpadronatuta badaude ere, herrian bizi dira. Jose Migelek esan digunez, “*baserri gisa funtzionatzen du erabat oraindik eta, itxuraz, horrela izango da urte batuetan, nahiz eta luzera begira, gauza batzuk aldatu beharko dituen*”.

gipuzkoak

Ander Orbañanos Iribar, ekainaren 17an.

eskondutakoak

Juan Lorenzo Idiákez Urraka eta Alzíber Calleja Tolosa, maiatzaren 28an.

Patxi Azkonobieta Manzisidor eta Pili Ugartemendia Lazcano, ekainaren 4an.

Iñaki Lizaso Aizpurua eta Idoia Rosillo Guarretxena, ekainaren 11n.

Jose Miguel Osoro Lopez eta Olatz Castro Larrañaga, ekainaren 11n.

Jokin Amilibia Agirresarobe eta Ana Aristi Landa, ekainaren 11n.

Antonio Etxeberria Olaizola ekainaren 18an.

orio**Musika Eskolari**

Matrikulazio-kanpainaren aitzakiarekin kalitatezko musika zuzenean entzuteko eman digun aukeragatik, eta, noski, eguneroko lanean Orioko musika-giroa suspertzeko hainbeste saiatzeagatik.

HIZKI ZOPA

R	A	B	I	O	G	L	E	P	M
Z	E	D	U	R	R	E	T	X	U
A	T	E	R	R	O	G	E	L	R
O	R	D	I	Z	I	A	A	X	N
B	A	W	K	G	B	Z	T	O	I
L	S	H	G	E	X	P	E	A	E
A	A	M	U	T	R	I	K	U	T
B	L	O	Ñ	A	N	Y	S	R	A
A	M	F	R	R	D	A	I	A	M
Z	U	M	A	I	A	N	Z	F	R
A	S	M	B	A	O	I	T	D	N
N	U	F	I	K	J	A	L	O	P
R	R	N	E	R	S	O	A	U	U
A	B	E	D	O	L	D	B	P	Ñ
Z	I	J	L	K	G	N	A	R	D
I	L	O	V	G	F	A	G	H	T
A	T	A	U	N	N	U	R	F	U

Ale honetako hizki zopan **Gipuzkoako hogeit herri** aurkitu behar dira.

Aurreko aleko ibaien izenak hauek dira: Nerbioi, Oria, Deba, Urumea, Bidasoa, Ega, Urola, Errobi, Uhaitzandi, Arga, Oka, Ibaizabal, Arakil, Artibai, Lea, Erro, Irati, Arratia eta Oiartzun.

orio**Guardia Zibilari**

Manuel Lasartek ekainaren 4an bere semea Eusebio atxilotzera joan zirenean jasan behar izan zituen tratu txar eta mehatxuak salatu nahi ditugu oraingo honetan.

Beraz, gure zoriotxarrak Guardia Zibilei.

Piper berdeak ganadu buztanez beteak

(6 lagunentzat)



Pello Lertxundi
Kanua jatetxea

OSAGAIAK:

- 12 piper berde
- 2 buztan
- 2 tipula handi
- piper berde bat
- 3 azenario
- porru bat
- 3 tomate
- Ardo ona

NOLA EGIN:

Buztana zatitu eta barazki guziekin elitzte batean olio pixkatekin gorritzen utzi. Ondo gorritzen denean ardoa (botila osoa) bota eta egosten utzi. Egosten denean, buztan pusketak atera eta mamiä apurtu. Saltsa "turmixen" txikitu eta gorde. Piper berdeak labean egin eta buztan haragiarekin bete, irin eta arrautzetan pasa eta errebozatu. Azkenik, lehen gordetako saltsaz estali.

KomikiA



nire honetan**Zorionean (eta II)**

Aurreko alean idatzitako «Zorionean» izeneko artikuluaren II. zatiari eutsiko diot ondoko lerroetan. Aipatu nituen Spielberg, Bernardo Atxaga, Jordan, Indurain etabarrak nahaspila «zoriontsu» batean. Gerora, beste batzen bat ere etorri zaiztut burura, Parisetik: Berasategi bizkaitarra, tenisean maisu.

Oraino honetan, ordea, ez dut telebistan ikusitakorik aipatuko, Orionberrian geritzen direnak baizik. Artea, ezin ahaztu hilaren hasieran herrian jasandako ekintza polizialek ekarritako «zorigaitzak». Badira poliziek dena kooponduko datela iritzi dutenak, zoritzartez.

Zoriona-zorigaitza-zoriona, hona hemen bizitzaren etengabeko desoreka.

Jasan ditugu, bai, oriotarrok, udal-ekintzak urriak, benetan eskasak, izan diren urteak. Zorionaren joan-etorn horretan, oraingoan zorioneko «etormia» tokatu zaigu bizitzea, dirudienez. Proiektuak besterik ez dira, momentuz, baina ekintzak gauzatzeko lehen-dabizi horixe izan behar dute, ideiak eta asmoak.

Badirudi aspalditik herritarren beharra eta eskaera ziren etxebizitza sozialen eraiketa bideratzeko asmoa badutela Udaletxean. Ongietorri ederra emango diogu hainbeste urtetan itxo-indako ekimen honi. Bestalde, eskoilearen proiektuaren berrikuspenna itxaropentsua dirudi, baita ere. Hemendik sortuko dira arrantza-portua, kirol-portua, eta errioaren jardueraren berpiztea.

Kulturak ere badu herrian proiektua, etxe berria egingo baiitate, «gongidatu» asko izateko. Kirolak eta oriotarren osasunak ere izango dute aukera biharko Orio honetan, polikirodegia, dagoeneko, ametsa bairo gelia gozta eta. «Etorkizunaren etorkizuna» emanen badu ere, badago baita ere Ortaizatik trenbide aldera joango den erre-pidea egiteko asmorik. Proiektu dexente daukagu arrenintzerako, baina ez da bide erraza izango. Gauzak ondo egin behar dira, eta ahal den gehienetan ados-tasunarekin.

● MANU ETXEBERRIA ●

San Juan Elizpe elkarteaaren kanta

Kanta hau Patxi Olidenek egina da, San Juan Elizpe elkartekoek eskatuta. Hernaniko San Juan martxaren doinuaz kantatzen da. San Juan Elizpeko Alberto Olidenek eskatu zion Patxiri letra jartza kantari elkartea urteroko afarian kantatzeko. Aurten kantatu zuten lehen aldiz.

San Juan lagun degula
hemen bildu gera gaur gure afari ederrean (BIS)
Pakean gabiltzanez, ez bildur izan
ta dei egin dezagun batean; (BIS)

GORA SAN JUAN GORA, GORA BETI GURE LAGUN ARTEA ETA GURE HERRIA

Denok abeslari geranez
ez gaitezen lotsatu
deadar egin dezagun
indartsu

GORA SAN JUAN GORA, GORA BETI GURE LAGUN ARTEA ETA GURE HERRIA

Urtean behingo biltzar hau
ez dezagun puskatu ta jarrai aurrera. (BIS)
Negar egunak ahaztu, umoreari eutsi
pakean kanta dezagun, batera: (BIS)

GORA SAN JUAN GORA, GORA BETI GURE LAGUN ARTEA ETA GURE HERRIA

Gizonki joka dezagun
eguna ondo bukatuz
berriro hemen alkartzeko
erregutuz

GORA SAN JUAN GORA, GORA BETI GURE LAGUN ARTEA ETA GURE HERRIA



Garai bateko itsaso oparoa

Gaurko itsas gizonen bizi ezina ikusita, merezi duela uste dut, gure itsaso honetan ezagutu genuen oparotasuna aipatzea. Arrantzarako itsasontziak, oraingoen aldean txikiak ziren. Noski, gainontzeko sare eta tresnak ere, antzekoak.

PATXI OLIDEN

Orduko arrantzaleek, ez zekiten oraindik arrain mota asko, nahiz ur haundietan izan, altuera jakin batetik behera ez zirela jaisten. Horregatik itxaroten zuten arraina bazterrena sartu arte sarea botatzeko, alegia sare beheko berunak, hondartzako jo arte. Uste izaten zuten, sareak beheko aldea libre bazuen, ezinezko zela arrain hori istea sare barruan.

Nik ezagutu ntuenerako, bazuten "makinilla" izeneko danbor bat, sare zorroa itxi arte sokak tiratzeko erabiltzen zutena, baina hau ezik, gainontzeko eragin guztiak, denak esku lanekoak ziren, sare alatik hasi eta arrai hartzeari.

"Medio mundo" hartzen zuten arraina

Arrain hau, salabardo jaso ohi zuten unitzitarraino, eta inoiz arrain asko zuela aditzera emateko, "medio mundo" bitarte hartu zutela entzun ohi zen. Medio mundo hau, salabardo baino zirkulo haudigoko uztaiaz egindakoa zen, kirtzen gabea eta sare zorro barrura botaz eta arrainaz betterik, unitzitarraino eskuz igotzen zuten bere sokatik tiraz. Hainbestera iristen zen esku lan hori, oraindik ez baitzuten beste elementu meka-

nikorik.

Artean untzi txikiak zirenez, aureko bodegan ekarri ohi zuten arraina. Noski, ora-indik ez zuten lotarako kainik hemen.

Kaiara etorrieta arraina ateratzeko, bazituzten halako zurezko kankurta batzuk, sokaz loturik uretarra botaz, gero ur horren bitartez barruan zuten arrain hori errazago ateratzeko. Lagun bat izaten zen ura ateratzeko; bestea, bodega barrutik "milaotarra" bitartez arraina kubiertara ateratzeko eta beste lagunek, esku banatan bi milao tar zituztela, kaiaren gora igotzeko.

Askotan, eskilerarik parean ez bazuten, muturrean burdinalezko kakoa zuen soka baten bitartez, goitik beste marinel batek ere igotzen zuen, gero

otarhutsak behera botaz. Arrain hau erabiltzeko, den-dena zumintz otarrez izaten zen, garraioa esku karroz eginez eskabetxerietaraino. Batzuetan idi parez osatutako gurdiaz ere izaten zen garraio hori. Arraina kaxetan erabiliz hori, beranduago sortu zen arrantzuntzi hauetan, nahiz eta le-gatz barkuetan Ichenagotik ezaguna izan.

Ikustekoa izaten zen Donostiarra kaian sortzen zen hara honerakoa. Itsasontzi de-nentzat tokirik nola ez zen, mutur zeharka sartzen behar zuak ziren bat bestearren ondoan elkar jotzen arraina ateratzeko unean.

Kanpoko hamaitza jende hurbiltzen zen emakume bat txilina joaz hasten zenean. Emakume hau, horretarako ze-goen, eta txilin hotsa somatzean, erosleak hurbiltzen ziren eta arrain muestra ikusi. Hemen hasten zen subasta edo nor gehiagokoa. Behin arrain hori subastatu ondoren, hasten zen ateratze lana erostunen aginduetara.

Orinoko kofradia etxeen ere ezagutu genuen benta edo subasta izeneko hori. Hemen, toki berezi bat zen erosleak eserita kokatzen zirena, aulkizentzuetan eta "benterua" subastatzen zioan bezela, erosleak mozten zuen subasta, eserlekuan zuen botoi bat sakatuaz.

Kofradipean bazeen pisu baskula haundi bat arrain pisa-ketetarako, gero hemendik banatuz, lantokietaru.

Hemen izendatzen dudan arrantza hau, bokarta edo antxoari buruzkoa da eta bestetik gabe konturatuko zarete zein oparo zen garai haietan itsaso hurbiletan, ze, izendatutako hau dena, harrikada bat bideko joan etorriko kontua zen. Askotan bitan edo gehiagotan ateratzen ziren egun berean itsasorantz.

Oringo radar edo detektorik ez eta izardeen laguntzaz baliatzen ziren arraina topatzeko, hainaz arrantza mota honek, uste dut besse xehetasun gehiago merezi duela hurrengo baterako.





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Argazki horretan iaz konfirmazioa egiten zutenak azaltzen dira. Uda osoa daukazuenez erantzuna emateko, denen izenak eman behar dizkiguzue.

Bigarren galdera: Noiz epaituko dute Asier Gozategi?

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Erantzunak irailaren 3rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko aleko irabazlea **Xabier Ostolaza** izan da. Hau zen eman beharreko erantzuna: Juan Lizarralde, Justo Agirrebeña, Manuel Ibarbia, Luis Lertxundi, Benedikto Etxeberria, Juan Jose Zubizarreta, Axenxio Segurola eta Juan Jose Lanberri.

Bigarren galderaren erantzuna: Hamasei.

ITSAS-ONDO

Bataloak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaia kalea, 7
tlfnoa: 13 11 79

Ekar ezazu zure
hipotekaren
azken
ordinagiria,
bezero ez
bazara ere,
zehazten
dizkizugun
Arreta
Espezialduaren
Zentruetara.
Astelehenetik
ostiralera
bitartean,
9etatik
arratsaldeko
6ak arte.
Edo gehiago
hobesten
baduzu, zatoz
gure edozein
sukurtsaletara.
Aldez aurretik
900 555 900
telefonoan
txanda eskatuz.
Zuri egokiago
kasu egiteko.
Zure kasu
pertsonala
adibide erreala
batekin
aztertzeko.
Zure hipoteka
zaharra kitatuz,
zenbat diru
aurrera
dezakezun
ikusteko.

Ekarri zure hipoteka eta kontuak atera.



Bilbon
Arenalean, 2 - 6.
solairuan.




Donostian
Askatasunaren
Hiribidea, 35ean.



Gasteizen
Dato, 14 - 16an.



Iruñean
Arcadio M.
Larraona, 1 - 1.
solairuan.
Euskadiko Kutxa
edifizioa,
San Juan
Ermitagaña.



30 mm.

D. B. 1990